

Gasteizen, 2017ko urriaren 10a

2003an Eusko Jaurlaritzak eta zenbait udalek Haurreskolak Partzuergoa sortu zutenetik 14 ikasturte igaro dira dagoeneko. Urte hauetan haurreskolen kopurua biderkatu egin da (235era arte), eta baita langile zein hauen zerbitzua erabiltzen duten familia eta haurrena ere.

Haurreskolak Partzuergoak denbora honetan eskaini duen zerbitzuak euskal jendarteari zer nolako onura ekarri dion inork ezin du zalantzan jarri. Bere helburuetan jasota dagoen moduan "Haurreskolak Partzuergoaren helburua 0 eta 2 urte bitarteko hurrei zuzendutako hezkuntza-zerbitzu osoa eskaintzea da, hala nola laguntza soziala, bereziki lana eta familia bizitza bateratzearen arloan", besteak beste. Ikasturte hauetan guztietan milaka haur eta familia pasatu dira urtez urte, beraz, Haurreskolak Partzuergoak gaur egun dituen 235 zentroetatik.

Hala ere, badira gobernu honek benetako haurreskola eredu publiko baten alde egin beharrean, pribatizazioaren alde ari dela agerian uzten duten datuak:

Familia guztiek 91 euroko aurrematrikula eta gehienek 208 euro ordaitzen dituzte hilabetero. Haurreskolak Partzuergoan haurrak matrikulatzeagatik ordaindu behar duten dirutza ordaindu beharko ez balute, matrikulazio datua beste bat izango litzateke.

Eta, matrikulazio epe nagusia maitzera arte atzeratu beharrean, Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten gainontzeko eskolekin batera burutuko balitz (sare pribatua barne), matrikulazio datua beste bat izango litzateke.

Administrazioak berak, Haurreskolak Partzuergoan matrikulazioa sustatzeko plan bat gauzatuko balu (publizitate kanpaina indartsua behar den momentuan, esaterako), matrikulazio datua beste bat izango litzateke.

Haurreskolak Partzuergoa Hezkuntza Sistemari irla bat izateari utzi eta bertan matrikulatzen diren hurrei sistemari bertan eskola-bidea ziurtatuko balitz, matrikulazio datua beste bat izango litzateke.

2017ko irailean jakin izan dugun moduan 0-3 urteko zikloa eskaintzen duten eskola pribatuei 24,6 milioi euroko diru-laguntza eman beharrean (272 zentro, itunik ez duen zikloa izanik), diru hori Haurreskolak Partzuergoaren finantziarioa hobetzeko erabiliko balitz, matrikulazio datua beste bat izango litzateke. Eusko Jaurlaritzaren beraren bozeramalea den Erkoreka jaunak "Haurreskolak Partzuergoaren eskaintza osatzen dute eskola hauek". Osatu, zer? Erkoreka jaunari inork esan al dio Eusko Jaurlaritzak eta Haurreskolak Partzuergoak eskaintzen dituzten plazen erdia hutsik zizutela 2017ko irailean? Ez al dute hutsik dauden plaza hauek nahikoa osatzen Haurreskolak Partzuergoaren eskaintza?

0-3 etapan aukera berdintasuna, doakotasuna, denona eta denontzat izan beharko litzatekeen eredu baten alde egin beharrean, eredu pribatu baten alde egiten du EAJK. Honen guztiaren atzean bestelako interesak daude, interes politiko, ekonomiko eta ideologikoak, egungo segregazio egoera mantentzeko apustu politiko garbia. Sare pribatuaren egungo pribilegiozko status-quo mantentzearen aldeko apustua. Gogoratu, Haurreskolak Partzuergoko matrikulazioa %20 jaitsi dela azken urtetan eta plazen erdia hutsik geratu direla.

Orain arte aipatutako guztiak zuzen zuzenean eragiten du haurreskoletako hezitzaileen lan-baldintzetan. Azken 5 urteetan 130 langile baino gehiagok galdu dute beraien lanpostua.

Egungo prekaritate eta behin-behinekotasun tasa ikaragarria (%40koa) mantentzea beharrezkoa du gobernu honek zerbitzu honen pribatizazioarekin jarraitzeko. Erabili eta botatzeko langileak behar ditu horretarako. Herri batzuetako haurreskola publikoen etorkizuna kolokan dago herriko eta inguruko ikastetxe pribatuetara bideratu delako matrikulazioa. Sare pribatuan hurrek eta langileek jasaten dituzten baldintzek aparteko eztabaida mereziko lukete.

STEILAS sindikatuak Haurreskolak Partzuergoaren etorkizuna ziurtatuko duen bideragarritasun plan bat aldarrikatzen du. Prekaritatea kudeatzeari utzi eta Haurreskolak Partzuergoa, behingoz, Euskal Hezkuntza Sistemari integratuko duen plan bat, familia eta haur guztiei babesa eskainiko dien plan bat, langilegoari etorkizuna ziurtatuko dion plan bat, jendartean ezberdintasunak ekidituko dituen plan bat. Hau gauzatzen ez den bitartean STEILASek ez du egoera hau zuzitzeko besterik balio ez duten bileretan parte hartuko, harik eta benetako negoziazio bat egon arte.

Langile eta familiak iaz hasitako eta aurten jarraipena duten mobilizazioetan parte hartzera deitzen ditugu, Haurreskolak Partzuergoaren etorkizuna kolokan baitago.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus